

[Eusk/Cast] ¿Por qué tienen que hacer los PPV lo que no hace la propia ETA?

JON IURREBASO ATUTXA. EX PRESO POLITICO DE ETA :: 11/03/2017

¿De qué se tienen que arrepentir los PPV? ¿Por qué los PPV tendrán que ser insolidarios entre ellos para poder acceder a la libertad cuando España y Francia quieran?

[Euskara]

Zergatik egin behar dute EPpek ETAk berak egiten ez duena?

Esan daiteke Euskal Herriko gizarte-jokabideetan balio handia aitortzen zitzaiola errespetua izateari, elkartasuna adierazteari, ardurak barneratzeari... Errespetua, elkartasuna eta ekina are handiagoa zen, eta da, euskal preso politikoak tartean zeudenean/daudenean. Horixe adierazi digute, behintzat, azken hamarkadetan Euskal Herriko gorabehera politiko eta sozialak bizi eta partekatu dituztenek. Eta horixe sinesten dut neuk ere.

Eta errespetuari, elkartasunari... buruz oker ez bagaude, galdera erraza azaleratzen da: Zergatik ETAk ez du inoiz egin (sekula ez baita berandu) adierazpen bat gaur egun bere militantei banan-banan exijitzen zaiena aitortuz, ihesi, erbesteratuta edo espetxeen dauden militanteen uintasuna eta izaera politikoa urratu beharrean? Hau da, Ezker Abertzalearen Ofizialtasunak euskal preso politikoei «iradokitzen» die salatzea eta damutzea direla legez mantendu beharreko marra gorriak, baina hortik aurrera... dena libre! Dena libre! Horixe da Sorturen «iradokizuna».

Badakigu euskal preso politikoek historikoki beste marra gorri batzuk izan dituztela. Adibidez, euren izaera politikoa, askapen nazional eta sozialaren alde egin zuten borrokaren ezaugarriak biltzen zituena. Elkartasuna dozenaka zapalkuntza espontaneoren aurrean, eta elkartasuna Kolektiboaren batasuna hausteko helburuz ondo pentsatutako dozenaka zapalkuntzaren aurrean. Hain zuen ere, batasuna da azken 60 urteetan euskal preso politikoen Kolektiboa haustea galarazi duen funtsezko elementuetako bat. Horra hor euskal preso politikoek urte luzez tingo mantendu dituzten printzipio batzuk. Gaia luzea bezain trinkoa da, eta aipaturikoak adibideak baino ez dira.

Hori esan ondoren, zergatik ETAk ez du eragindako kaltea aitortzen? Zergatik ez da damutzen eta zergatik ez die biktimei barkamena eskatzen? Zergatik ez du jokatzen berak ere elkartasunik gabe preso, ihesi edo erbesteratuta dauden burkideen aurrean, presoei eskatzen zaien bezala? Zergatik ez du salatzen eta zergatik ez du laguntzen ehunka ekintzaren erantzukizuna argitzen? Zergatik ez du esaten hasieratik oker zegoela? Zergatik ez du aitortzen ETAk hori guztia, eta zergatik, aldiz, laguntzen du bere militanteak (eta militante ez direnak) horretara bultzatzen? Zergatik? Izan ere, horixe guztia egin behar da Sortuk aldarrikatu eta euskal preso politikoen Kolektiboiri iradokitzen dion ildoan.

Zergatik iraganean logikotzat jotzen genuen ETAKo ehunka militanteek bere erakundearen ekintza guztiak bere egitea Espainiako eta Frantziako guda-auzitegien aurrean, eta zergatik

jotzen zuten dozenaka mila lagunek miresgarritzat konpromiso hori, errespetu hori, elkartasun hori? Zergatik uzten zuten mira eginda ETAko militanteek Euskal Herriko iritzi politikoa, Spainiako Estatutua Baskongadetan ezarri izana salatzeko gose greba eginez? Zergatik jotzen zen logikotzat zapalkuntza salatzeko preso politikoek gose grebak egitea? Hainbeste gauza esan litezke... Bainak leku faltak mugatu egiten gaitu.

Zergatik damutu behar dute euskal preso politikoek? Zergatik izan behar dute euskal preso politikoek insolidarioak elkarren artean, Spainiak eta Frantziak nahi dutenean askatasuna eskuratzeko? Zergatik hautsi behar dute euskal preso politikoen kolektiboaren batasuna? Zergatik uzten da horrelaxe Espetxeetako Frontea? Zergatik utzi bertan diren kideak gure etsaien esku? Fronteak ixtea erabaki delako? Eta etsaiak Espetxeetako Frontea (besteren artean) ixten ez badu? Zikloz aldatu dela eta etsaia ez dela horretaz jabetu edo jabetzen bada mendekuz ari dela behin eta berriro esanez ibili beharko dugu funtsezko besterik egiten ez dugun bitartean? Asko gara EPPak dignitateaz atera ahal ditugula sinistuta gaudenok. Lehen ere egin genuen eta egingo dugu beste behin ere. AMNISTIAren helburu taktiko zein estrategikoak lortu arte, jo eta ke!

Jon Iurrebaso Atutxa. ETAko preso politiko ohia.

[Castellano]

¿Por qué tienen que hacer los PPV lo que no hace la propia ETA?

En Euskal Herria se puede decir que prestigiaba el hecho de guardar respeto, ser solidario, asumir responsabilidades... como norma de conducta social. El respeto, la solidaridad y la entrega crecían cuando concernía y concierne a los presos políticos vascos (PPV). Al menos así lo aseguran quienes han podido vivir y compartir el devenir político y social de Euskal Herria en las últimas décadas. Así lo creo yo también.

Si no nos equivocamos sobre lo del respeto, solidaridad... sencilla pregunta: ¿Por qué ETA no hizo (nunca es tarde) una declaración en la que asumía lo que a sus militantes ahora se les exige uno a uno y dejamos intacta la dignidad de los militantes huidos, deportados o encarcelados? Es decir, desde la oficialidad de la Izquierda Abertzale, se les “sugiere” a los miembros del Colectivo de PPV que las líneas rojas a mantener por imperativo legal son la delación y el arrepentimiento y que de ahí en adelante barra libre. ¡Barra libre! Esa es la “sugerencia” de Sortu.

Nos consta que los PPV históricamente han tenido otros puntos rojos. Por ejemplo su carácter político, piedra angular que definía las características de su lucha de liberación nacional y social. El carácter solidario ante una y mil represiones espontáneas y también bien calculadas para romper la unidad del Colectivo. Precisamente la unidad en la práctica es uno de los elementos clave por el que no han podido romper el Colectivo de PPV en los últimos 60 años. Estas son algunas de las premisas que han mantenido a los PPV en pie y alertas a lo largo de muchos años. El tema es bien largo y denso pero vale lo dicho como botón de muestra.

Dicho esto ¿por qué ETA no reconoce el daño causado? ¿Por qué no se arrepiente y pide perdón a las víctimas? ¿Por qué no se muestra insolidario/a con sus compas presos, deportados y huidos como se exige a los militantes encarcelados para con sus compañeros? ¿Por qué no delata y ayuda a esclarecer la autoría de no sabemos cuántos cientos de acciones? ¿Por qué no dice que se equivocó desde el principio? ¿Por qué no asume ETA todo eso y por contra coadyuva a que sus militantes (y no militantes) tengan que hacerlo? ¿Por qué...? Porque todo eso piden en la vía penitenciaria que propugna Sortu y sugiere al Colectivo de PPV.

¿Por qué nos parecía lógico que cientos de militantes de ETA hicieran suyas todas las acciones de su organización ante los tribunales de guerra españoles y franceses y les parecía admirable ese compromiso, ese respeto, esa solidaridad a decenas de miles de personas? ¿Por qué dejaban admirada a la opinión pública vasca cuando militantes de ETA hacían huelga de hambre para denunciar la implantación del estatuto español de Vascongadas? ¿Por qué parecía lógico que hicieran huelgas de hambre para denunciar actos represivos? Tantas cosas cabría decir... Estamos obligados por espacio.

¿De qué se tienen que arrepentir los PPV? ¿Por qué los PPV tendrán que ser insolidarios entre ellos para poder acceder a la libertad cuando España y Francia quieran? ¿Por qué tienen que romper la unidad del Colectivo de PPV? ¿Por qué se deja de esa manera el Frente de Cárceles? ¿Por qué se deja en manos del enemigo a los compañeros que están encerrados? ¿Porque se ha decidido cerrar el Frente? ¿Y si el enemigo no cierra (entre otros) el Frente de Cárceles? ¿Vamos a tener que andar diciendo que el enemigo no se ha enterado que se ha cambiado de ciclo o si lo ha hecho que actúa por venganza mientras no hacemos algo definitivo? Somos muchos los que estamos convencidos que podemos sacar a los PPV con dignidad. Lo hicimos antes y lo volveremos a hacer de nuevo. Duro y adelante hasta conseguir los objetivos tácticos y estratégicos de la AMNISTIA.

Jon Iurrebaso Atutxa. Ex preso político de ETA

<https://eh.lahaine.org/eusk-cast-ipor-que-tienen>